



JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

ZIURTATZEN DUT: Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2019ko abenduaren 20an, **578** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

"IKUSIRIK: 2019ko Aurrekontu Orokorretan, Barrundiako udalerrian erroldatutako herritarrei euskara ikasketak garatzeagatik beken emakidaren oinarriak onartu ziren. Horiek emateko honako baldintza hauek bete behar ziren: Barrundian erroldatuta egotea eta euskara eskoletan ehuneko 75etik gorako asistentzia egiaztatzea edo, hala badagokio, HABE edo gaitasun probak egiaztatzen dituen beste edozein organismo ofizialetan matrikulatuta dagoen ikastaroa gainditu izana egiaztatzea.

Diruz lagundu beharreko ikasturtea 2018-2019 zegokionari zen.

Oinarri horiek 2019ko urriaren 9. datako (117. zenbakia) Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

KONTUAN HARTUZ: Deialdia arautzen duten oinarrietako 5ak xedatutakoaren arabera, eskaria eta dokumentazioa 2019ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko ziren Barrundiako Udalaren erregistro orokorrean.

GERTUA IZANIK: Alkate-Udalburuak, 2019ko azaroaren 14ko 500. erabakiaren bidez, Pablo Rodríguez Quillay jaunari, 358,15 €tako beka luzatu zion 2018-2019 ikasturtean euskara ikasketak garatzeagatik.

GERTUA IZANIK: Pablo Rodríguez Quillay jaunak, HABEren aldetik 735,00 €tako zenbateko dirulaguntza jaso zuen ikasketa horiek aurrera eramateko.

GERTUA IZANIK: Pablo Rodríguez Quillay jaunak euskara ikasketak garatzeagatik 377,00 €tako matrikula ordaindu zuen. Beraz, 358,15 €tako gainfinantzaketa egon da.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENENGOA.- Pablo Rodríguez Quillay jaunari, 2018-2019 ikasturtean euskara ikasketak garatzeagatik jasotako 358,15 €tako gainfinantzaketa itzul dezan eskatzea.

Itzulketa, erabaki honen jakinarazpena jaso ondorengo egunetik zenbatuta, hilabeteko epean gauzatu beharko da.

BIGARRENA.- Behin aurreneko klausulan zehaztutako ordainketa gauzaten denean, beraduntza korrituak kitatuko dira.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau interesdunari jakinaraztea."

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2019ko abenduaren 20an.

ALF.
ALKATEA

